

HIRIKO MINTEGIA: LOKALAK ALOKATZEKO LAGUNTZAK.

1. art.- XEDEAREN DEFINIZIOA ETA DIRU-LAGUNTZAREN HELBURUA.

Oinarri hauen xedea sortu berri diren enpresak edo finkatu gabeko enpresa txikiak, bere enpresa-jarduera hasi eta garatzeko kokapena behar dutenak, laguntzea da, Basauri-Izartu I gunean lokalen alokairua erraztera bideratutako laguntzen bidez; modu horretan, bide batez, eremu honen gizarte-ekonomiazko birsorkuntza laguntzen da.

Hiriko Mintegiaren Programan parte hartzen duten enpresek Laguntza Zerbitzuetan parte ahal izango dute; horiek Basauri-Etxebarri Behargintza Enplegua Laguntzeko Udal Zentroak ematen dizkie Baskonia kaleko Enpresen Mintegian dauden eta sortu berri diren sustatzaile eta enpresei. Zerbitzu horien barruan honakoak sartzen dira:

- Enpresa aholkularitza
- Prestakuntza zerbitzua
- Agiriak eskuratzeko aukera

2. art.- DIRUZ LAGUN DAITEKEENA ETA DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA.

2.1. Oinarri hauen ondorioetarako Izartu-I gunean dauden lokalen enpresa jarduerak garatzeko alokairua diruz lagun daitezke (ikusitako eranskina), sortu berriak diren negozioak badira. Negozio berritzaletatik hartuko dira 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera sortutakoak.

2.2. Diruz lagunduko dira 2007ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31 arte izandako alokairu gastuak.

Kontratuaren formalizazio data eta jardueraren alta data bat ez badatoz, jardueraren altari dagokion data aintzat hartuko da.

2.3. Diruz lagun daitekeen gehieneko prezioa:

- Lehendakari Agirre (31 zk arte) eta Kareaga Goikoa kaleak. Alokairu kontratua 16 €/m²-ko izango da gehienez ere (BEZ kanpo). Dirulaguntzaren kopurua 10 €/m²-ko (BEZ kanpo) gehieneko kopuruaren gainean kalkulatu da.
- Izartuko gainerako guneak: Alokairu kontratuak 10 €/m²-ko (BEZ kanpo) izango da gehienez ere. Dirulaguntzaren kopurua 10 €/m²-ko (BEZ kanpo) gehieneko kopuruaren gainean kalkulatu da.

2.4. Diruz lagundu daitekeen aldia:

- Jardueraren lehenengo urtean: alokairuaren merkatu prezioaren % 75 diruz lagunduko da, goian aipaturiko mugekin. Eskaerako 6.400 euro ordainduko dira gehienez ere.

2.5. Ez dira diruz lagunduko aurreko deialdian diruz lagundu diren jarduerak aurreko xede bera baldin badute.

2.6. 2006ko deialdian onuradun izandakoak, 2007ko deialdian ezarritako baldintzetara bilduko dira.

3. art.- DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN PERTSONAK ETA ESKATUTAKO BETEKIZUNAK.

3.1. Diru-laguntza horiek pertsona fisikoek eta juridikoek eta, nortasun juridikoa ez dutela, unitate ekonomikoa edo ondare banandua osatzen duten erakundeek jaso ahal izango dituzte, badin eta hurrengo eskakizun hauek betetzen badituzte:

- a) 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera eratuta eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dauden enpresak, betiere beste enpresa baten jarraipen ekonomikoa ez bada baina bestelako izenarekin eta aurrekoaren osagai pertsonal eta materialen zati handia baliatuta.
- b) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eta Gizarte Segurantzako Araubide egokian egin beharreko alta Basauri udalerrian egitea (Izartu I gunean).
- c) 400.000 € (66.554.400 pezeta) baino gutxiagoko kapital soziala duten enpresak.
- d) Hamar langile baino gutxiagoko aurreikuspena duen enpresa.
- e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean daramatzatela egiaztatzea.
- f) Arau-hausteak egiteagatik diru-laguntzak jasotzeko eskubiderik gabe utzi ez izana.
- g) Laguntza hauetatik salbuetsita geratuko dira lokalaren jabearen senideak, 2. mailako ahaidetasunera arte.

3.2. Lehenetsuna izango dute emakumeek, gazteek, 45 urte baino gehiagoko pertsonak eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten bestelako kolektiboek garatutako proiektuek.

3.3. Erakunde eta sozietate publikoak honako diru-laguntza hau aplikatzeko esparrutik salbuetsita geratuko dira.

4. art.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO MODUA.

4.1. Diru-laguntzen eskabideak Basauri-Etxebarriko Behargintzan (Baskonia 1) aurkeztuko dira, eta horiekin batera ondoko agiri hauek ere aurkeztuko dira:

- a) Enpresaren ordezkariak duen pertsonak sinatutako eskabide-orria.
- b) Jatorrizko fakturak era horien kopiak, eta egindako gastuak egiaztatuko dituzten egiaztariak, gastu horiek diruz laguntzeko modukoak balira, eta benetan, indarrean legokeen oraingo ekitaldian ordainduak balira.
- c) Pertsona juridikoaren identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia edo eskatzailearen NANaren fotokopia.
- d) Sozietateen kasuan, eskabidea aurkezten duen pertsonaren ordezkarietako ahalordearen fotokopia, eta pertsona fisikoaren NAN edo lan-baimenaren fotokopia.
- e) Enpresa eratzeko erregistroko datuak eta eratzeko eskrituren kopia.
- f) Gizarte Segurantzaren erregimen egokian enpresak egindako altaren kopia eta Enpresa Gizarte Segurantzaren alta emateari buruzko kopia.
- g) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan egindako altaren kopia.
- h) Jarduera eta funtzionamenduko lizentziaren kopia, edo horren eskaria.
- i) Basauriko Udalaren Ekonomia eta Ogasun Arloaren jatorrizko ziurtagiria, honen bidez udal izaerako zerga-betebeharrak egunean daramatzatela adierazten dela edo, bestela, eta behin-behinekoz, berau eskatu izanaren ziurtagiria, bai enpresa osatzen duten pertsona bakoitzarena, bai enpresarena berarena.
- j) Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiri eguneratuak, erakunde hauekin hartutako betebeharrak egunean dituztela ziurtatzen dutenak, bai enpresa osatzen duten pertsona bakoitzarena, bai enpresarena berarena.
- k) Enpresa txikia izatearen eskakizunak betetzen dituztelako zinpeko adierazpena. (Eredua erantsi da).
- l) Enpresa Planean aipatutako kontratazioak egitearen egiaztariak (TC-2 edo nahikoa den bestelako egiaztariak).
- m) Arau-hausteak egiteagatik diru-laguntzak jasotzetik baztertuta ez dagoelako zinpeko aitortpena. (Eredua erantsi da)

Udal honen aldetik diru-laguntzak jaso baldin badituzte, behar bezala justifikatuta ditzutelako zinpeko adierazpena. (Eredua erantsi da)
Inbertsio berarako bestelako erakunde publiko edo pribaturen baten eskutik jasotako edo eskutatako diru-laguntzen zinpeko adierazpena. (Eredua erantsi da).

- n) Eratze Gastuetarako oinarrietan, 8.2., 8.3.b eta 8.3.c artikuluetan, deskribatutako kolektibo gutxietsi batekoa dela egiaztatuko duen egiaztagiria. (Eredua, honi erantsita doa).
- o) Basauriko Udalaren hartzekoduneko fitxa, bertan enpresaren bankuko datuak jasota daudela. Fitxa hau enpresaren kontua dagoen finantza-erakundeak zigilatuta aurkeztu behar dute. (Eredua erantsi da).
- p) Enpresaren plana edo, hala badagokio, enpresaren txostena, azken horren edukia Autoenpleguko Ataleko teknikariek esplizitua egingo dute.
- q) Negozio Planean aipatutako lankidetzak erabakiak.
- r) Basauri-Etxebarriko Behargintzaren bideragarritasunari buruzko ziurtagiri/txostena.
- s) Lonjaren jabearekin ahaidetasun-harremanak, 2. maila arte, ez dituelako zinpeko adierazpena.
- t) Alokairu kontratuaren jatorrizko dokumentua eta fotokopia.

4.2. Basauriko Udalak, eskabidea sartzen den egunetik, 10 laneguneko epea emango du akatsak zuzendu edo falta diren agiriak aurkezteko.

5. art.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA.

Eskabideak aurkezteko epea testu osoa BAO-n behin betiko argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da, eta esleitutako aurrekontu-zuzkidura agortzen denean amaituko da edo, bestela, 2007ko azaroaren 30n.

6. art.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

6.1. Diru-laguntza ematen duten egunetik aurrera, jarduera ekonomikoa, gutxienez 12 hilabetez mantendu behar du, jarduera bere borondatearen aurkako arrazoiengatik bukatu dela agirien bidez egiazta daitekeenean izan ezik. Udalak, edonoiz, betebeharrak haur betetzen dela frogatzeko jarduketak egin ditzake, eta, horretarako, pertsona onuradunari berau egiaztatzen duten agiriak aurkezteko eskatu ahal izango dio.

6.2. Lau hilean behin Basauri-Etxebarriko Behargintzako Autoenplegurako Ekipo Teknikoarekin enpresari buruz aholkularitza emateko bilerak egitea.

6.3. Diru-laguntza emateko kontuan hartu den edozein egoera, hala objektiboa nola subjektiboa, aldatzen bada jakinaraztea.

6.3. Basauriko Udalak, bere eginkizunak burutzerakoan emandako diru-laguntzei dagokienez, eskatzen duen informazio guztia ematea.

7. art.- BALIABIDE EKONOMIKOAK.

Diru-laguntza hauek osatzen dituzten fondo publikoak mugatuta daude, Basauriko Udalak 2007ko aurrekontuan dagoen erabilgarritasunaren arabera; aurrekontu hori, bestalde, 74.744,15 eurokoa da.

8. art.- BESTELAKO LAGUNTZA BATZUEKIN BATERA EGOTEA.

8.1. Diru-laguntza hau ematea bateragarria izango da beste erakunde batzuek emandako beste edozeinekin, betiere hurrengo baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Oinarri hauean ezarrita dauden laguntzek Batzordearen «mínimis»en arauei buruzko 96/C8/06 zenbakidun Jakinarazpenean ezarritako «mínimis»en arauak edo Europar Batasunaren esparruan xede horretan emandako bestelako arauak edo xedapenak bete behar dituzte. Hori dela eta, onuradun berberari emandako laguntza guztien zenbateko osoa, «mínimis» kontzeptuan, ezin da 100.000 euro baino handiagokoa izan hiru urteko aldian.

b) Honako oinarri hauei heltzen zaizkien diruz laguntzeko proiektuek ezin dute bestelako laguntzarik jaso, hauen izaera eta ematen dituen administrazioa edozein direla ere, baldin eta, horiek oinarri hauen ondorioz ematen direnei gehituta, erkidegoaren araudian aurreikusitako laguntzak pilatzeari buruzko mugak gainditzen badituzte, eta kopuru hori ezin da inolaz ere horiek diruz laguntzen duten inbertsio-proiektu edo gastuaren kostua baino gehiagokoa izan.

c) Emandako laguntzetatik zuzenean kenduko da Erakunde edo Administrazioek emandako beste edozein laguntza, honetan xede berbera badago diruz lagun daitezkeen egitateei dagokienez, betiere aurreko zenbakian adierazitako gehienezko kopuruetara iristen den kasuetan.

9. art.- BALORAZIOA ETA DIRU-LAGUNTZA EMATEA.

9.1. Diru-laguntzak baloratu, eman eta ordaintzea era jarraituan egingo da ekitaldian barrena, horrela xede honetara zuzendutako fondoak horretan zehar gastatzen joango dira.

9.2. Eskabideak ebatzi behar dituen epaimahaia, gutxienez, honako hauek osatuko dute:

- Osasun, Kontsumo eta Enplegu Sustapeneko atalburua.
- Udalaren Enpleguko teknikaria.
- Behargintzako Autoenpleguko teknikaria.
- Enplegua Sustatzeko Arloko ordezkaria.

Eta hitzarekin, baina botorik gabe: talde politiko bakoitzeko ordezkari bat.

Epaimahaiak ahalmena du diru-laguntzak emateko prozeduraren barruan sortzen diren gorabehera eta erreklamazio guztiak ebazteko, eta egokitzat jotzen dituen aurrekariak eta txostenak eskatzeko.

9.3. Diru-laguntzak emateko ohiko prozedura lehiaketa izango da. Aipatutako prozedura horren arabera, diru-laguntzak emateko aurkeztutako eskabideak alderatzen dira, horien arteko lehentasuna ezartzeko helburuz.

9.4. Salbuespen gisa, erakunde emaileak diru-laguntzaren guztizko zenbatekoa hainbanatuko du diru-laguntzaren onuradunen artean.

9.5. Epaimahaiak agiri guztiak dituzten eta oinarrietan ezarritako eskakizun guztiak betetzen dituzten eskabide guztiak aztertuko ditu, eskabideak oinarrien arabera ebaluatuko ditu, eta emateko proposamena luzatuko dio ebazteko eskuduna den organoari, halaber, diru-laguntzen onuradunak eta, eskatzaile bakoitzaren merezimendu zehatzen arabera, horien zenbatekoa ere adieraziko ditu.

9.6. Erabakitzeke ahalmena izango duen organoa alkatetza izango da, eta gehienez ere, eskaera jaso eta 6 hilabetera erantzun beharko du.

9.7. Berariazko ebazpena izan ezean, administrazioaren isiltasuna ezeztapen gisa ulertuko da.

9.8. Proiektu onuradunak hautatzeko balorazio irizpideak.

- INDARREKO ARAUDIA BETETZEA.
- LOKALA ENPRESAREN JARDUERARA EGOKITZEA.
- ENPRESAREN BIDERAGARRITASUNA ETA SENDOTASUNA.

I.- SUSTATZAILEEN EZAUGARRIAK ETA SUSTATZAILEA ETA ENPRESA IDEIA EGOKITZEA.

II.- PROIEKTUAREN BIDERAGARRITASUN TEKNIKO ETA EKONOMIKOA.

III.- PROIEKTUAREN JATORRIA.

IV.- ENPLEGUA SORTZEA

V.- ESKAINITAKO PRODUKTU EDOTA ZERBITZUA ETA MERKATUAREN EGOERA.

10. art.- DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEA.

Epaimahaiak egindako balorazioa ikusita, eskabideak ebatziko dira alkatetzaren ebazpenaren bidez hartutako erabaki bidez; hori idatziz jakinaraziko zaie eskatzaileei.

Laguntza adierazitako bankuko kontuan ordainduko da; aldez aurretik, baina, honako hauek aurkeztu beharko dira: lokalaren alokairuaren ordainketari dagozkion fakturak, jarduera indarrean dagoela erakusten duen ziurtagiria eta administrazioetan egin beharreko ordainketak eginak daudela frogatzen duten agiriak.

11. art.- OINARRIAK EZ BETETZEA.

Onuradunak ez badu oinarri hauetan ezarrita dagoen edozein baldintza betetzen, horren ondorioz, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko du, jasotako kopuruak itzuli beharko ditu, eta diru-laguntza ordaindu zaionetik sortutako berandutzako interesak eskatuko zaizkio.

12. art.- DATU PERTSONALEN BABESA.

Oinarri hauek tramitatzearen ondorioz sortzen diren agirietan islatutako datu pertsonalak Udal honen eta Basauri-Etxebarri Behargintza, SL izeneko Udal Sozietatearen datu-fitxategietan sartuko dira, honen helburua oro har ematen diren zerbitzuen kudeaketa erraztea izanik.

Laguntzen programan parte hartzeak ez du esan nahi jakinarazten diren datu pertsonalak Administrazio Publikoei edo Basauriko Udalaren, edo Basauri-Etxebarri Behargintza, SL izeneko Udal Sozietatearen, erakunde laguntzaileei utzi ahal izango zaizkienik. Lagapen hau, hala ere, udalaren eta sozietatearen eginkizunekin zuzenean lotutako xedeak bete ditzaten laguntzeko bakarrik gertatu ahal izango da.

Eskabidea aurkezten duen pertsonak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurka agertzeko eskubideak erabili ahal izango ditu, bai eta legearen arabera dagozkion beste guztiak ere, Basauriko Udalaren eta Basauri-Etxebarri Behargintza, SL izeneko Udal Sozietatearen helbidean (Baskonia kalea 1).

1. ERANSKINA.

Izartu gunea osatzen duten kaleen zerrenda:

Agirre Lehendakaria kaleko 1etik 31 arte

Arizgoitiko plaza

Asturias

Axular

Basozelai

Baskonia

Bidasoa ibaia

Bidearte

Fauste

Florian Tolosa

Foruak

Gipuzkoa

Ibaizabal

Iparragirre

Jacinto Benavente

Jose Etxegarai

Juan Ibargutxi

Juan Ramón Jimenez

Kareaga Behekoa

Kareaga Goikoa

Karmelo Torre

Landa Doktorren

Luis Petralanda.

Marcelino Gonzalez

Particular de Asturias

Pintor Zuloaga

Ramon y Cajal

Severo Otxoa